

Badator artearen nazioarteko lehen gau-azoka: **DONOSTIARTEAN INTERNATIONAL ART NIGHT MARKET**

Donostian egiten den arte garaikideko azoka itxuraldatu egingo da laugarren edizioan, eta artearen nazioarteko lehen gau-azoka bihurtuko: **Donostiar-tean International Art Night Market**. 2017ko uztailaren 20tik 23ra bitartean izango da Kursaalaren, hiriko kulturaren ikur den eraikinean.

Donostiar-tean International Art Night Market azokak 9 erakusketa-gune izango ditu, eta 3.500 m² ko azalera hartuko du: 1. Galeriak | 2. C70 Gunea | 3. Bertako artistak | 4. Soloprojects | 5. Emerging Talents | 6. Inter-Sections | 7. Digital Room | 8. Street Art for Kids | 9. Artea deskribatzen.

Gau-azokaren erdiko gunean, 1.812 m² bertako eta nazioarteko galerien proposamenei eskainita egongo dira: C70 Gunea, non zenbait artistak galeria bat partekatu ahal izango duten. **Donostiar-tean International Art Night Market** azokak bertako artistei eskainitako gune berezi bat izango du, **Bertako Artistak** izenekoa; **Soloprojects**, artisten proiektu pertsonalak aurkezteko; **Emerging Talents** talentu berrien elkargune izango da; **Inter-Sections** sailean artea beste zenbait diziplinarekin erlazionatzen duten proiektuak aurkituko ditugu: sukaldaritza, arkitektura eta dekorazioa. Arte digitalak ere izango du bere lekua **Digital Room** aretoan eta, gainera, bi ekintza burutuko dira aldi berean: bat haurrentzat, **Street Art for Kids**, non parte-hartzaileek benetako graffiti bat egiteko aukera izango duten, eta bestea, **Artea Deskribatzen**, elaborazio prozesuak ezagutaraziko dizkiguna.

Diziplinen arteko interrelazioei esker, artearen nazioarteko gau-azoka artista, erosle, galeria, bisitari eta art lovers-en harremana sustatuko duen agertoki bilakatuko da, eta bertako zein nazioarteko artisten arte garaikideko obrak erosteko parada emanen, baita diseinu-joera eta dekoraziokoak ere. Horrez gain, koktel pertsonalizatuz, sukaldaritzaz eta zuzeneko musikaz gozatu ahal izango dugu.

Estatuan egiten den nazioarteko lehen gau-azoka da, eta Donostia aukeratu dugu horretarako.